



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 20a

107. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da banda zabaleko Interneten hedapena susta dezan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte ekintzailtzako ekimenak susta eta babes ditzan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legetik, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkotik, Konstituzio Auzitegiak balio gabetu ez dituen artikulua. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua. Garapen Ekonomikorako Batzordeak bazter utzia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baititu Saharako herriaren askatasunaren alde eta giza eskubideen defentsan onetsi diren adierazpen instituzional guztiak eta bestelako erabakiak. Akats zuzenketa (5. or.).
- Jabeldura, Legegintzaldiaren lehen urteko kudeaketari buruzkoa. Jabeldura erretiratzea (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, ikastetxeetan hezkidetzari eta emakumeen aurkako indarkeriak prebenitzeari buruzko plan bat prestatu ez izanaren arrazoiei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, erresonantzia magnetikoen enpresa esleipen-hartzailearen ez-betetzeei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Urdazubiko leizeetako azken aurkikuntzak direla-eta Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiei buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (8. or.).

- Galdera, Nafarroaren defizitaren muga 0,7an jartzeari dagokionez Espainiako Gobernuaren pasibotasunak eta geldotasunak sortutako egoeraren aitzinean Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari eta abiara-ziko dituen jarduketei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua abian jartze aldera Ginekologia eta Obstetria Departamentua antolatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Mármolés Baztan enpresak 2013an sustatutako ustiapen-baimenaren egoera administratiboari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzarako protokolo orokorrari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, landa garapeneko hainbat programatan emakumeen parte-hartzea areagotzeko jarduketa-proposamenei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Tuterako Montes del Cierzo industrialdeko Sigma Brakes, S.A. enpresan gertaturiko lan-istripuari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari eta garatuko dituen jarduketei buruzkoa, LOMCEn ezarritako errebalidei dagokienez. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikuluan ezarritako kontratu-erreserbari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, irakasleen oporrak ordaintzeari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, beren lanbide-jardueran ari direla osasun-langileen izan ditzaketen arriskuak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako erantzukizun zibileko polizaren estaldurari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2015eko abenduaren 31koa. Akats zuzenketa (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da banda zabaleko Interneten hedapena susta dezan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da banda zabaleko Interneten hedapena susta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du banda zabalaren hedapena susta dezan, Nafarroako biztanleen % 100engaino heltzeko eta, horrela, munduko ikus-entzunezko edukiak guztiek eskuratzea ahalbidetzeko".

Iruñean, 2016ko irailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Amiantoaren Biktimei Kalte-ordaina emateko Funtsa sor dezan, xede izanen duena erabateko erreparazioa ematea bai amiantoak eragindako gaixotasun profesionala aitortzea lortu duten pertsoneri, bai Espainian amiantoaren eraginpean egoteagatik kaltetutakoei".

Iruñean, 2016ko irailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte ekintzaitzako ekimenak susta eta babes ditzan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko irailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte ekintzaitzako ekimenak susta eta babes ditzan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte ekintzaitzako ekimenak susta eta babes ditzan, bai eta, halaber, gizar-

te enpresako geroagoko fase guztiak, kalitatezko enplegu egonkorra lortzeko moduko aukera berri-tzaile gisa, honako hiru helburu nagusiekin:

- Mendekotasunerako arreta eta autonomiaren sustapena.
- Bazterketa-egoeretarako arreta eta gizarteratzearen sustapena.
- Babesgabetasuneko eta larrialdi sozialeko egoeretarako arreta.

Iruñean, 2016ko irailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legetik, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen bik-timen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkotik, Konstituzio Auzitegiak baliogabetu ez dituen artikulua.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko irailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legetik, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen bik-timen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkotik, Konstituzio Auzitegiak baliogabetu ez dituen artikulua.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea lehenengo xedapen gehigarria hiru hilabeteko epean bete dezan eta omenaldi-ekitaldi bat egin diezaien motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan

eskuin muturreko erakundeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko bik-timei. Omenaldi horretan ordainezko adierazpen bat irakurriko da, zeinak bik-timen duintasuna, ospea eta eskubideak berrezarriko dituen eta barkamen-eske publiko bat eginen duen, gertakarien aitortpen bat ere eginik.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea gai hori sar dezan Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren urteroko programan, 2016-2017 ikasturteari begira.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea, Estatuko Gobernua jartzen ari den eragozpenak gorabehera, jarduketa-plan bat taxutu dezan 6 hilabeteko epean, eskuin muturreko taldeek edo Estatuaren aparatuek eragindako eta oraindik aitortu gabeko bik-timen errekonozimendu eta erreparazioa bideratua.”

Iruñean, 2016ko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako zentro teknologikoen hazkundera eta bilakaera babestu ditzan, zentro teknologikoen sarerako eredu berri bat prestatuz, Europako errealitate teknologikora egokitua.

Legebiltzarreko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko irailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko irailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baititu Saharako herriaren askatasunaren alde eta giza eskubideen defentsan onetsi diren adierazpen instituzional guztiak eta bestelako erabakiak.

AKATS ZUZENKETA

Otsailaren 26ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean akats bat atzeman da. Beraz, akats hori zuzendu beharra dago.

Aldizkariaren 9. orrialdean argitaratu zen adierazpen instituzionalaren (Eledunen Batzarrak otsailaren 22an onetsitakoa) 7. puntua falta da. Beraz, testu osoa argitaratzen da:

"1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten ditu Saharako herriaren askatasunaren alde eta giza eskubideen defentsan onetsi diren adierazpen instituzional guztiak eta bestelako erabakiak, eta Marokoko Erresumak okupatutako lurraldeetan sahararren eskubide zibil eta politikoak erreibindikatzeko dituztenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Marokoko agintariak premiatzen ditu bertan behera utz ditzaten Sahara Mendebaldean giza eskubideak defendatzen dituzten ekintzaileen aurkako jazarpenak eta aske utz ditzaten Marokoko eta Mendebaldeko Saharan espetxeetan dauden preso politikoak.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du Saharako herriak autodeterminazio-eskubidea daukala, Nazio Batuen Erakundeak hitzartutako terminoetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio dagokion zeregina bere gain har dezan eta babes dezan, bai bere jardunean,

bai Europar Batasunaren esparruan aritzen denean, gatazka konpontzeko prozesua, Nazio Batuen ebazpenekin bat.

5. Nafarroako Parlamentuak berresten du Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoko Gobernu zilegiarekiko errekonozimendua eta Fronte Polisarioko kideekiko babesa –bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko bere ordezkariak–, eta Saharako herriari babesa ematen dioten elkarteekin batera, konpromisoa hartzen du kausa horren aliatu fidela izaten jarraitzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die herritarrei eta erakundeei Saharako herriari babesa eman diezaioten eta harekin lankidetzan jardun daitezuten eremu politikoetik eta humanitarioetik, eta sala dezaten Saharako herriak bizi duen ahanztura eta babesgabatasun egoera, nazioarteko krisi ekonomikoko egoera honetan areagotu dena."

7. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die nafar herritarrei Nazio Batuen Erakundeak hitzartutako terminoetan sahararren autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzen duten elkarretartzeetara joan daitezela, Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren aldarrikapenaren 40. urteurrena dela-eta."

Iruñean, 2016ko irailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Jabeldura, Legegintzaldiaren lehen urteko kudeaketari buruzkoa.

JABELDURA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura erretiratu izanari dagokionez. Jabeldura Legegintzaldiaren lehen

urteko kudeaketari buruzkoa zen, eta 2016ko ekainaren 24ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, ikastetxeetan hezkidetzari eta emakumeen aurkako indarkeriak prebenitzeari buruzko plan bat prestatu ez izanaren arrazoiei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxeetan hezkidetzari eta emakumeen aurkako indarkeriak prebenitzeari buruzko plan bat prestatu ez izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Parlamentuak 2015eko azaroan onetsi zuen lehenbailehen ezarri behar zela ikastetxeetan hezkidetzari eta emakumeen aurkako indarkeriak prebenitzeari buruzko plan bat, ikastetxe guztiek 2016-2017 ikasturterako nahitaez bete beharrekoa. Zergatik ez da plan hori prestatu?

Iruñean, 2016ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, erresonantzia magnetikoen enpresa esleipen-hartzailearen ez-betetzei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, erresonantzia magnetikoen enpresa esleipen-hartzailearen ez-betetzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Osasun Zerbitzuak erresonantzia magnetikoen enpresa esleipen-hartzailearen ez-betetzetik detektatu al du?

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Urdazubiko leizeetako azken aurkikuntzak direla-eta Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiei buruzkoa.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Urdazubiko leizeetako azken aurkikuntzak direla-eta Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Urdazubiko udalerrian, Alkerdi eta Leorlas auzoetan hain zuzen ere, Berroberria, Zelaieta eta Ikaburua izeneko leize-zulo multzoa dago. Inguru horretan, bestalde, aspaldi lanean ari den harrobi bat dago marmola ateratzeko, Mármoles del Baztan enpresak ustiatuta.

Leize-zulo horien eta inguru natural horren balio historikoa, kulturala eta ekologikoa handiak dira, eta harrobiaren jarduerak balio horietan eragin eta arrisku jakin batzuk sortu ditu. Horren ondorioz, harrobiaren eta inguru hori behar bezala

mantentzearen arteko auzi bat sortu zen, eta auzi hori azkartu egin zen 2014. urtean harrobiaren baita 30 urterako berritu zenean.

2016. urtean, eta Nafarroako Kontseiluaren ebazpenaren ondoren, luzapenaren inguruko ebazpena berrikustea erabaki zuen Nafarroako Gobernuak. Eta aldi beretsuan, 2016ko udaberrian, eta Kultura Departamentuaren aginduz, Aranzadi Elkartek inguruko leize-zuloen azterketa xehea egin zuen. Departamentuak berak jakinarazi duenez, azterketa horretan oso balio eta garrantzi handiko aurkikuntzak egin dira, ondare arkeologiko eta labar-pintura oso esanguratsuak agertu baitira, Alkerdi 2 izendatu den gunean. Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legeak bere 40.2 artikuluan dioenez, labar-pinturak gorde dituzten guneak "Kultur Intereseko Ondasun" izendatu behar dira.

Bestalde, eta Aranzadi Elkartek iradoki duen arabera, bateraezinak dira harrobiaren jarduerarekin jarraitzea eta inguruko ondare historikoa eta arkeologikoa mantentzea nahiz zaintzea.

Horiek guztiak kontuan hartuta,

Zer erabaki du Nafarroako Gobernuak, aipatutako ebazpenak eta azken hilabeteotako aurkikuntzak kontuan hartuta, Urdazubin Mármoles del Baztan enpresak duen harrobiaren jarduerari buruz? Jarduera eteteko erabakirik hartu al da, eta, hala baldin bada, zein dira eten horren baldintzak eta ezaugarriak? Zein dira Nafarroako Gobernuak Urdazubin kokatutako leize-zuloak eta ondare guztia babesteko hartuko dituen neurriak?

Iruñean, 2016ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Nafarroaren defizitaren muga 0,7an jartzeari dagokionez Espainiako Gobernuaren pasibotasunak eta geldotasunak sortutako egoeraren aitzinean Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari eta abiaraziko dituen jarduketeki buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroaren defizitaren muga 0,7an jartzeari dagokionez Espainiako Gobernuaren pasibotasunak eta geldotasunak sortutako egoeraren aitzinean Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari eta abiaraziko dituen jarduketeki buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, irailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

- Parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen eta zer jarduketa abiaraziko dituen Nafarroaren defizitaren muga 0,7an jartzeari dagokionez Espainiako Gobernuaren pasibotasunak eta geldotasunak sortutako egoeraren eta Nafarroako aurrekontuei begira izanen dituen ondorioen aitzinean.

Iruñean, 2016ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua abian jartze aldera Ginekologia eta Obstetria Departamentua antolatzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua abian jartze aldera Ginekologia eta Obstetria Departamentua antolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola antolatuko da Ginekologia eta Obstetria Departamentua Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua abian jartze aldera?

Iruñean, 2016ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Mármoles Baztan enpresak 2013an sustatutako ustiapen-baimenaren egoera administratiboari buruzkoa.

UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, Mármoles Baztan enpresak 2013an sustatutako ustiapen-baimenaren egoera administratiboari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilari Aierdi jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi ezagutu da Nafarroako Gobernuaren aginduz Aranzadi zientzia elkarteak egindako ikerketa baten emaitza, agerian jarri duena orain arte ezezagunak ziren Paleolitoko labar-margoak daudela Urdazubiko udal mugarteko Alkerdiko leizeetan. Aurkikuntza horiei Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legeko

manuak aplikatu behar zaizkie; halatan, Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusiak Kultur Intereseko Ondare gisa inskribatu ditu horiek, Eremu Arkeologikoaren mailan, Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan.

Jakina denez, paraje horri dagokionez, Mármoles Baztan, S.A.ri "Alkerdi 2363" emakidaren luzapena eman zitzaion Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren urriaren 10eko 90/2013 Ebazpenaren bidez. Haren bidez, onetsi egin ziren ustiapen-proiektua, enpresak urte hartako uztailean proiektuari egindako aldatetekin, eta enpresak aurkeztutako lehengoratzetara plana.

Gobernu berriarekin, kulturaren nahiz inguruaren babesaren ikuspuntutik espediente horrek izandako gorabeherak gorabehera, Garapen Ekonomikorako Departamentuak ofizios berrikusi zuen egoera berri honek bete-betean ukitu duen espediente hori.

Hori guztia kontuan hartuta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zertan da, administrazioari dagokionez, Mármoles Baztan enpresak 2013an sustatutako ustiapen-baimen hori? Aurkikuntza horiek zer eragin daukate enpresa horri orain arte emandako baimenei dagokienez?

Iruñean, 2016ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzarako protokolo orokorrari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzarako protokolo orokorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatzen duenari jarraiki, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan maiatzaren 10ean Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzarako protokolo orokorra sinatu zuten bi gobernuetako buruek. Bertan, beste hainbat arloekin batera,

Osasungintzaren eremuari dagokion atal bat ere jasotzen da, honela dioena:

“Osasun arloa bi autonomia erkidegoetako herritarren kezka nagusietako bat da. Osasun sistema publikoaren funtsezko oinarriak elkartasuna, berdintasuna, unibertsaltasuna, ekitatea, kalitatea, koordinazioa eta lankidetzaren dira, osasun arloko berdintasun eza gairak; kalitatezko osasun zerbitzu publikoa lortzea da helburua, zein den ere bizitokia edo osasun laguntzaren prestazioak eskatzen diren tokia. Hortaz, bi aldeek adierazten dute xede hori duten ekintza bateratuak egiteko borondatea dutela.”

Jasotako konpromisoa orokorra da, eta gure ustez bere garapenak osasungintzaren kalitateari eta baliabideen optimizazioari dagokionez aukera asko zabal dezake, mugakideak diren eremuetan bizi diren herritarren osasun laguntza arautzeaz harago.

Horrexegatik, honako galdera egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Zein asmo dauka Gobernuak lankidetzaren protokolo hau osasun arloan garatzeari dagokionez? Zein eremutan garatuko du? Baliabideak partekatu eta optimizatzeko nolako aukerak ikusten ditu?

Iruñean, 2016ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, landa garapeneko hainbat programatan emakumeen parte-hartzea areagotzeko jarduketa-proposamenei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, landa garapeneko hainbat programatan emakumeen parte-hartzea areagotzeko jarduketa-proposamenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroan zertan dira –edo zer zehaztapen-maila dute– landa garapeneko programan emakumeen parte-hartzea areagotzeko eta aukera berdintasuna errazteko jarduketa-proposamenak (2005), landa garapeneko 2014-2020 programa eta Nekazaritza-ustiategiaren titulartasun konpartuari buruzko 35/2011 Legea?

Zenbat emakumek jaso dituzte nekazari gazteentzako laguntzak?

Iruñean, 2016ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Tuterako Montes del Cierzo industrialdeko Sigma Brakes, S.A. enpresan gertaturiko lan-istripuari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Tuterako Montes del Cierzo industrialdeko Sigma Brakes, S.A. enpresan gertaturiko lan-istripuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordeak 2016ko irailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2016ko irailaren 7ko goizaldean lan-istripu bat gertatu zen Tuterako Montes del Cierzo industrialdeko Sigma Brakes, S.A. enpresan, zeinaren ondorioz Iban Martín langilea hil baitzen. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer daki gertakari horri buruz, istripuaren aurretiko inguruabarrei buruz

eta istripuaren zergatia eta erantzukizunak argitzeko ikerketei buruz, aintzat harturik Foruzaingoak, Lan Ikuskaritzak eta, kasua bada, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak berak egin bide dituzten jarduketak?

Iruñean, irailaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari eta garatuko dituen jarduketei buruzkoa, LOMCEn ezarritako errealalderi dagokienez.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari eta garatuko dituen jarduketei buruzkoa, LOMCEn ezarritako errealalderi dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkarreko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak

Parlamentuaren 2016ko irailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernurako 2015etik 2019ra bitarteko programa-akordioan jasota dator Alderdi Popularraren Gobernuak onetsitako Hezkuntza Kalitatea Hobetzeari buruzko Lege Organikoa arbuizatzea, eta borondate espresa adierazten da, lege hori indargabetzea lortze aldera lan egitekoa.

Nafarroako Parlamentua eta hezkuntza-erikidagoaren gehiengo handi bat lege horren aurka daude eta, zehazki, errealalderi aurka.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak arautzen dituen uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretuaren bidez, Alderdi Popularraren jarduneko gobernuak errealalderi aplikazioa zehaztu zuen.

Kontuan hartuta LOMCErekiko arbuio politiko eta soziala eta, zehazki, errealalderikoa, Nafarroako Gobernuak zer jarrera dauka eta zer jarduketa garatuko ditu errealalderi dagokienez?

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikuluan ezarritako kontratu-erreserbari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikuluan ezarritako kontratu-erreserbari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak erantzun diezaion:

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 9. artikuluan ezarritako kontratu-erreserbari dagokionez, zein izan da, 2015ean, kontratu-erreserben exekuzioa eta Enplegu Babestua Laguntzeko Batzordeak eta batzorde horretako Batzorde Teknikoak legegintzaldi hau hasi zenetik izandako bileren kopurua?

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, irakasleen oporrak ordaintzeari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, irakasleen oporrak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea

jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak irailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zenbait hedabidetan argitaratutako informazioen berri izan dugu, zeinetan adierazten baitzen Nafarroako Kontseiluaren baieztoko txostenik gabe onetsi zela irakasleen oporrak ordaintzeari buruzko foru dekretua. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du informazio horri buruz?

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, beren lanbide-jardueran ari direla osasun-langileek izan ditzaketen arriskuak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako erantzukizun zibileko polizaren estaldurari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera beren lanbide-jardueran ari direla osasun-langileek izan ditzaketen arriskuak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako

erantzukizun zibileko polizaren estaldurari buruzkoa zen, eta 2016ko apirilaren 12ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2015eko abenduaren 31koa.

AKATS ZUZENKETA

2015eko abenduaren 31ko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrendan akats bat atzeman da. Zerrenda hori 2016ko otsailaren 19ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egiten da:

18. orrialdean, honako hau esan ordez:

<i>Izen-abizenak</i>	<i>Maila</i>	<i>Gradua</i>	<i>Lanpostua</i>	<i>Administrazio egoera</i>
Esparza Oroz, Miguel	A	7	Legelari nagusia	Jardunean

Honakoa behar du:

<i>Izen-abizenak</i>	<i>Maila</i>	<i>Gradua</i>	<i>Lanpostua</i>	<i>Administrazio egoera</i>
Esparza Oroz, Miguel	A	7	Legelaria	Jardunean

Iruñean, 2016ko irailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
